

IRAKASKUNTZA-GIDA

2020/21

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25777 - Aisialdiko Jarduera Fisikoak eta Kirol Jarduerak

ECTS kredituak:

9

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgaiak aisialdiarekin erlazionaturiko jardueretan kreditu esperimental handia du. Kirol aisialdirako baliabide anitzak lortzea eragin nahi du eta aisialdi arloan profesionalki aritzeko gaitasun instrumentalak lortzea ere bai. Bigarren mailako Natur Jardueren Oinarriak, hirugarren mailako Jarduera Fisiko eta Kirol Jardueren Kudeaketa eta Aisialdia eta kanpoko Praktika ikasgaiekin zuzenean loturik dago.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IKASGAIKO GAITASUNAK:

1. Lehiaketa eta aisi arloko adierazpenak zehaztasunez aztertu eta baloratu.
Aprendizaiaren emaitzak 1: ikasleak kirol eta aisialdiko adierazpen nagusienak ezagutuko ditu.
2. Espainiarren kirol azturen errealitatea kritikoki identifikatu. Zeregina: ondorioen analisi eta kategorizazioa.
Aprendizaiaren emaitzak 2: ikasleak azken urteotako kirol praktikaren bilakaera ezagutuko du.
3. Kirol proba herrikoien eragina zehaztasunez ezagutu.
Aprendizaiaren emaitzak 3: ikasleak kirol ekitaldien inpaktua ulertuko du.
4. Hezkuntza arloan aisiaren arloan kokatzen diren kirol jardueren erabilera analizatu.
Aprendizaiaren emaitzak 4: ikasleak eskola kiroleko aisialdia sakontasunez ezagutuko du.
5. Eskola kirolaren agente sustatzaileak ezagutu.
Aprendizaiaren emaitzak 5: ikasleak argi bereiztuko du eskola kirolaren antolakuntza.
6. Eskola kirolean aisialdiko jardueren proposamen berriak ezagutu eta aurrera eraman.
Aprendizaiaren emaitzak 6: ikasleak ezagutuko ditu eta gai izango da eskola kirolean aisialdiko jarduera berriak proposatzeko.
7. Parte hartzaile jakin batzuentzako aisialdiko jarduera fisiko eta kirol jarduera bat, ur ingurunekoa, naturakoa edo eta hirikoa planifikatzeko, aurrera eramateko eta ebaluatzeko gai izan.
Aprendizaiaren emaitzak 7: ikasleek kirolari multzo zehatz bati aisialdiko jarduera bat, ur ingurunekoa, naturakoa edo eta hirikoa zuzentzea lortuko dute.

ZEHARKAKOAK:

- 1.G020. Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.
G020 Gaitasunaren aprendizaiaren emaitzak:
 - 1.1. Egoera erreal berri bati aurre egiteko ezagutza eta teknikak aplikatzen ditu, aldaketa oportunitate eraldatuz.
- 2.1. Tresna edo/eta baliabide egokiak erabiliz arazo errealaren emaitzari aurre egiten dio.
- 2.G021. Lan arloko bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea
G021 Gaitasunaren aprendizaiaren emaitzak:
 - 2.1. Markatutako helburu eta gaitasunetatik abiatuz eta denboralizazioa kontutan hartuz zereginen garapena analizatu, proposatu eta hobetu.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. AISIALDIKO JARDUERA FISIKO ETA KIROL JARDUERAK UR INGURUNEAN

- 1.1. Aisialdiko eta kirol jardueren kontzeptualizazioa
- 1.2. Aisialdiko eta kirol jardueren helburuak eta ezaugarriak
- 1.3. Aisialdiko eta kirol jardueren metodologia eta modalitateak
- 1.4. Kirol lizentziak
- 1.5. Kirol txapelketak eta bere inpaktua
- 1.6. Kirol azturak
- 1.7. Eskola kirola

2. AISIALDIKO JARDUERA FISIKO ETA KIROL JARDUERAK HIRIAN

- 2.1. Hiriko arkitektura
- 2.2. Instalakuntza publikoak
- 2.3. Instalakuntza pribatuak
- 2.4. Asebetetze galdetegiak: metodologia.

3. AISIALDIKO JARDUERA FISIKO ETA KIROL JARDUERAK NATUR INGURUNEAN

- 3.1. Natur ingurunean zuzendutako jarduerak
- 3.2. Natur ingurunean zuzendu gabeko jarduerak
- 3.3. Eskola kirola natur ingurunean
- 3.4. Seguritatea natur ingurunean
- 3.5. Turismo aktiboa: natur turismoa, ekoturismoa, landa turismoa, aisialdiko turismoa
- 3.6. Turismo eskaintza: AKTIBA
- 3.7. Turismoaren ekonomia

METODOLOGIA

Eskola teorikoak sendotzeko zereginenez osatuko dira (arazoen konponketa, bilaketa gidatua, bibliografía lagungarria, aurkezte pertsonala...) modu horretan ikaslea irakaste-aprendizaia prozesuan inplikatzeko. Eskola praktiko eta landa eskoletan, adibide egokien ondoren, ikasleak rol nagusia hartzen du bere kirol proposamena taldeari aurkeztu eta egiteko; ohikoa den instalakuntza batean eta baita naturan ere.

- G020 zeharkako gaitasuna talde erreal batekin ikasleak egin beharko duen aisialdiko jarduera baten bidez ebaluatu eta kalifikatuko da
- G021 zeharkako gaitasuna talde erreal batekin ikasleak egin beharko duen naturako jarduera baten bidez ebaluatu eta kalifikatuko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		50						10
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45		75						15

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 34
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 33
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 33

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluaketa bi modutan egin daiteke:

ETENGABEKO EBALUZIOA:

- Ariketak, kasuak eta praktikek (%33), lan idatzi formatuan egindako idatzizko proba (%34) eta lanaren aurkezpenak (%33).
- Ikasleek eguneroko praktikaren (gela zein landa praktiketan egingo diren ariketak, kasuak eta praktikak) %80 gainditu behar dute.

Etengabeko ebaluazioa gainditzeko, ikasleak 10etik 4ko gutxieneko kalifikazioa lortu beharko du lan idatzian eta lanaren aurkezpenean, batez bestekoa egin ahal izateko. Ikasleek eguneroko praktikaren kasuan aldiz, 10etik 8ko kalifikazioa atera beharko dute bataz bestekoa egin ahal izateko. Epea igaro ondoren praktika edo zereginen bat entregatuz gero, 5etik kalifikatuko da. Irakasgaia gainditutzat emango da, ikasleak 10etik 5eko gutxieneko kalifikazioa lortzen duenean.

Ikasle batek atalen bat gainditzen ez baldin badu ez ohiko deialdia egin beharko du gainditu ez duen gaiarekin bakarrik. Nota partzialak kurtso akademiko berean bakarrik gordeko dira.

EBALUAZIO JARRAIARI UKO EGITEA: Ikasleak ebaluazio jarraiari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, 18 asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita.

AZKEN EBALUAZIOA:

Azterketa idatzia izango da notaren %100. Azterketa gainditutzat izateko 10etik 5eko kalifikazioa izan beharko du ikasleak. Honetaz gain, zeregin eta talde lanak ere entregatu beharko dira.

Ikasle batek atalen bat gainditzen ez baldin badu ez ohiko deialdian egin beharko du gainditu ez duen gaiarekin bakarrik. Nota partzialak kurtso akademiko berean bakarrik gordeko dira.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2020-2021 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan (<https://www.ehu.eus/eu/ehu-edonondik/ebaluazioa>). Ebaluazio proba hauek ahozkoak izan litezke.

DEIALDIARI UKO EGITEA:

- Deialdiari uko egiten dioten ikasleek "aurkezteke" kalifikazioa jasoko dute.
- Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.
- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

USTEZKO IRUZUR, KOPIA EDO PLAGIOAREN AURREAN

Ohiko deialdian, ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio. Era berean, irakasgaiaren ardura duen irakasleak ikasleari jakinaraziko dio suspentso kalifikazioa (0.0) izango dela.

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.

Azterketa idatzia zein eskatutako lan guztiak entregatu beharko dira. Ikasleak praktikak edo lanak E-Gela plataformaren bidez entregatu beharko ditu azterketaren ez ohiko deialdia azken entregatze data izanda. Irakasgaia gainditzeko (10etik 5) atal bakoitzean (talde lanean, zeregin/praktiketan eta azterketan) gutxienez 10 puntutik 4ko nota lortu beharko du.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2020-2021 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan (<https://www.ehu.eus/eu/ehu-edonondik/ebaluazioa>). Ebaluazio proba hauek ahozkoak izan litezke.

DEIALDIARI UKO EGITEA:

¶ Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

USTEZKO IRUZUR, KOPIA EDO PLAGIOAREN AURREAN

Ez-ohiko deialdian, ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio. Era berean, irakasgaiaren ardura duen irakasleak ikasleari jakinaraziko dio suspentso kalifikazioa (0.0) izango dela.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Alcalde, Iñaki (2008). Montes de Gipuzkoa. Bilbao: Sua.

Angulo, Miguel, Eguiluz, Malu. (2010). Gorbeia. Bilbao: Sua.

Barbero J.C.(2000). Los Juegos y Deportes Alternativos en Educación Física. <http://efdeportes.com/> Revista Digital, 22. Buenos Aires.

Bueno, P. (1992). El libro del mountain bike. Madrid: Desnivel.

De Bergia, E. y otros. (1992). Iniciación al piragüismo. Madrid: Gymnos

Feliu, Juan Mari. (1990). Navarra paso a paso. Bilbao: Sua.

García Ferrando, M., Llopis, R. (2011). Ideal democrático y bienestar personal. Encuesta sobre los hábitos deportivos en España 2010. Catálogo de publicaciones de la Administración General del Estado: Madrid.
<http://www.csd.gob.es/csd/estaticos/dep-soc/encuesta-habitos-deportivos2010.pdf>

Gartzia, Z. (1999). Kirol Alternatiboa (I, II). Deba Garaiko Euskera eta Kirol Zerbitzuak.

Gil-García, José Antonio. (1999). Montes de Araba. Bilbao: Sua

Jardi, C, Rius, J. (1990). 1000 Ejercicios y juegos con material alternativo. Barcelona: Paidotribo.

Litwin, J. (1983). Organización de campeonatos deportivos. Buenos Aires: Stadium.

Ruiz, G. (1991). Juegos y Deportes Alternativos. Lérida: Agonos.

Teruelo, B. (2012). El Fitness, vanguardias y tendencias. Plazan, 34, 4-7Virosta, A. (1994). Deportes Alternativos en el ámbito de la Educación Física. Madrid: Gymnos.

Escuela Española de Alta Montaña. (2001). Certificado de iniciación al montañismo. Benasque (Huesca): Barrabes.

Martinez, Azucena et altres (1994). Montes de Bizkaia. Bilbao: Sua

Martínez de Pisón, E, Alvaro S. (2002). El sentimiento de la montaña: doscientos años de soledad". Madrid: Desnivel.

Martínez Osma, Angel. (1996) La práctica del deporte de orientación en centros educativos y deportivos. Madrid: Gymnos.

Molina, J. P., Valenciano, J. (2010). La recreación físico-deportiva y su tratamiento del cuerpo: un análisis crítico. Apunts, 100, pp. 66-72. Barcelona.

Rebollo, S., Latiesa, M. (Eds.) (2002). Salidas profesionales en el campo del turismo deportivo. Málaga: IAD.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

- El mundo de los Pirineos.
- Euskal Herria.
- Grandes Espacios.
- Pyrenaica.

Interneteko helbide interesgarriak

www.barrabes.com
www.efdeportes.com
www.desnivel.com
www.lau-haizetara.org
www.korfbal.com
www.floorball.org
www.kait-kirola.org/es/web/actividades/revista/34
www.mendiak.net
www.mendikat.net
www.aemet.es
www.eltiempo.es/
www.snow-forecast.com/
www.euskalmet.net
www.ign.es/iberpix/visoriberpix/visorign.html
www.maixua.com
www.colpbol.es/
www.uned.es/ca-tortosa/Curso%20Verano/Curs2012/Ponents/Araceli_Lazaro/Elaboracion_de_Proyectos.pdf
[www. economiaenchandal.com](http://www.economiaenchandal.com)

OHARRAK

Irakaskuntza euskarri gisa eGela plataforma birtuala erabiliko da